

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuaren Ordezkaritzak eta Nafarroako Gobernuak protokolo bat sinatu dute terrorismoari goraipamena eta gorazarre egiten dizkioten pintadak kentzeko

Akordioak bi erakundeen arteko elkarlana sendotzen du eta alor horretako funtzioen bikoiztasunarekin amaitzen da

Martes, 06 de noviembre de 2012

Nafarroan Gobernuak duen ordezkari Carmen Alba Orduna-k eta Nafarroako Gobernuko Lehendakartzako, Justiziako eta Barneko kontseilari Javier Morrás Iturmendi-k lankidetzarazko protokolo bat sinatu dute Foru Komunitateko zenbait udalerritan dauden pintadak, kartelak edo pankartak kentzeko eta terrorismoari goraipamena eta gorazarre egiten diotenak.



Alba ordezkaria eta Morrás kontseilaria lankidetzarako hitzarmena sinatzen.

Bi erakundeen arteko elkarlana sendotzen eta alor horretako bikoiztasunari amaiera ematen dion akordioa hartu da, udal batzuek beren funtzioetan utzikieriaz jokatu dutela egiaztatu ondoren, terrorismoa edo terroristak aipatzen dituen pintadak eta kartelak onartuz beren udalerrietan.

Egungo araudiaren arabera, udalak dira garbiketako zerbitzu publikoa emateko erakunde eskudunak, eta haren barnean sartzen da pintadak garbitzea.

Nafarroako Gobernuak nahiz Gobernuaren Ordezkaritzak protokolo hori sinatu dute, bi aldeek interesa baitute Foru Komunitateko udalerrietako kaleetan eta fatxadetan terroristen eta talde terroristen aldeko eta terrorismoari gorazarre egiten dioten aldeko pintadak eta kartelak egon ez daitezen; haiek erakutsiz, gainera, biktimak mespretxatzen eta makurrarazten dira.

Jarduteko protokoloa

Protokoloaren arabera, terroristen aipamenean bat azaltzen den pintada edo pankarta baten berri ematen denean, Polizia Nazionalea, Guardia Zibila eta Foruzaingoa arduratuko dira txosten bat egiteaz, eta beren administrazio publikoari entregatuko diote. Nafarroako Gobernuak eta Gobernuaren Ordezkaritzak idatzi hori bateratuko dute, komunikazio

arina ezartzeko eta bikoiztasunak ekiditeko.

Txostena eginda eta, hura egin duen poliziaren arabera, bata edo bestea arduratuko da udalari egoeraren berri emateaz, eta gogoratuko zaio pintadak garbitzeko legezko betebeharra duela, eta haiek kentzeko hilabeteko epea emango zaio.

Epea amaitu ondoren, Nafarroako Gobernuak edo Gobernuaren Ordezkaritzak egindako eskaera gauzatu dela egiaztatuko da. Hala egin ezean, Foru Gobernuak pintadak garbitu eta kenduko ditu eta lan horren kostuak agindua bete ez duen udalaren esku geratuko dira. Jarduketa hori gauzatu da, organo judicial edo fiskal eskudunei egindako gertakarien bidalketari kalterik egin gabe, erantzukizun penalak eskatze aldera.